



KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO UDAL ORDENANTZA

Legazpiko Udala



KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO UDAL ORDENANTZAREN EREDUA

AURKEZPENA:

Osasuna babestuta Izateko eskubidea eta ingurumen egokia edukitzeko eskubidea guztiona da. Are gehiago, norberaren osasuna eta ingurumen osasuna eskutik doazela esan dezakegu.

Horregatik, gaur egun mundu osoak nabaritzen duen klima aldaketak eragin handia du ingurumenean, baita biztanleengan ere. Gizakien jarduera ugarik kaltetzen dute ingurumena eta, haietako askok, atzera egin ezinezko moduan. Horren froga, kasu askotan, agerikoa da; beste kasu batzuetan, ikerketa zientifikoek frogatu dute; eta, kasu batzuetan, epe laburrera frogatzea zaila da, baina zantzu guztiek adierazten dute arriskutsua dela.

Klima aldaketa arazo globala da, baina gutariko bakoitzak horretan eragiteko ahalmen nahikoa dauka. Gure eguneroko jokaeran aldaketa txikiak egiteak ere berotegi-efektuko gasen isurpenak saihesten lagun dezake, gure bizi-kalitateari kalterik egin gabe.

Hala, klima aldaketaren aurkako udal ordenantza tokiko udalbatzen ardura ere baden politika bati estaldura juridikoa emateko sortu da. Ingurumen arazoei ikuspegi globaletik eta lokaletik aurre egiteko irizpideak udalak klima aldaketaren aurkako borrokako arlo horretan politikak finkatzera bultzatzen ditu. Politika horren osagaietako bat klima aldaketaren aurkako ordenantza onartzea da, hain zuzen.

Ordenantza honek esanahi berezia du; izan ere, honen bidez klima aldaketari orain ez duen ikusgarritasuna eman nahi zaio. Gaur egunera arte klima aldaketaren inguruan bultzatutako ekimen partzialek arazoa osorik agertu behar diete herritarrei eta administrazio publikoari; bestalde, ekimen horiek argi utzi behar dute zer nolako erantzunak eman nahi diren tokiko eremuan arazo garrantzitsu hori konpontzen laguntzeko.

Ekintza globala klima aldaketari buruzko Kyotoko Protokoloan finkatu zen; protokolo hori nazioarteko akordioa da eta berotze globala eragiten duten sei gasen isurketak murriztea du helburu: murrizketa horrek % 5koa izan behar du gutxi gorabehera, 2008tik 2012ra bitartean, 1990eko isurketekin alderatuz. Europar Batasuna oso eragile garrantzitsua da protokoloa zehazteko orduan; hala izanik, batez besteko guztizko isurketak % 8 murrizteko konpromisoa hartu zuen 2008-2012 epealdirako, 1990ko erreferentzia hartuta. Herralde bakoitzari tarte desberdin bat jarri zitzaion, ekonomiarekin eta ingurumenarekin lotutako hainbat aldagai kontuan harturik, betiere «zamaren banaketaren» printzipioa oinarri hartuta. Banaketa horretan, Espainiako Estatuak isurketak gehienez ere % 15 handitzeko konpromisoa hartu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoan konpromiso hori gauzatzeko, Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana (2008-2012) onartu zuten 2007ko abenduaren 4an, EAEko Ingurumen Esparrurako Programan (2007-2010) finkatutakoaren arabera. Plan horren lehen helburu estrategikoa da berotegi-efektuko gasen isurketa % 14ra mugatzea, oinarri urtetik hasita. Hori lortzeko, planak nabarmendu egiten du tokiko administrazioaren eginkizuna; bai bultzatu beharreko jarduerengatik, bai herritarrengandik hurbil dagoelako. Beraz, ezinbestekoa da jarduera horiek modu koordinatuan egitea, Udalsarea 21en bidez, hots, Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarearen bidez.

Klima aldaketaren aurkako politika tokiko beste politika batzuen barruan dago, eta haietako guztiak askotariko balio juridikoak dituzten arauetan eta testuetan daude bilduta: hala gertatzen da iraunkortasunerako politiken kasuan ere, Tokiko Agenda 21aren kasuan bereziki, agenda horrek Aalborgeko konpromisoei egindako ekarpenak nabarmenduz. Politika hori bideratzeko, ordenantza testuan tokiko administrazioek dituzten tresnak eta baliabideak azaltzen dira: zehazki, berotegi efektuko gasen inbentarioa egiteko beharra aipatzen da. Inbentario horretatik sortuko da Klima Aldaketaren aurkako Programa.

Azkenik, klima aldaketaren aurkako politika bultzatzeko ezinbestekoa da herritarrek haren garapenean parte hartzea. Zalantzarik gabe, edozein jarduera publikok errealitatea eraldatzeko gaitasun gutxiago izango du, baldin eta herritarrek ez badituzte politika politikoak beren egiten. Errealitate hori bereziki nabarmena da klima aldaketaren esparruan.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, Klima Aldaketaren aurkako Udal Ordenantza onartu da, gai horrekin lotutako politika publikoetan herritarren esku-hartzea sustatzeko tresna juridiko gisa.

LEHEN ATALA PRINTZPIO OROKORRAK ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK.

1. artikulua. Homologazioaren helburua

Klima aldaketaren aurkako ordenantza orokorraren helburua udal esku-hartzea arautzea da, berotegi efektuko gasen isurketa murrizteari dagokionez eta klima aldaketarako egokitzapen neurriei dagokienez.

2. artikulua. Printzipioak

Hona hemen Legazpiko Udaleko agintariak, klima aldaketari dagokionez, kontuan hartu beharreko printzipioak:

- Iraunkortasun politika, Tokiko Agenda 21: klima aldaketaren aurkako politika udalaren esku-hartze zabalago baten barruan dago, eta Tokiko Agenda 21aren esparruan garatzen da, Aalborgeko Konpromisoekin bat eginez eta iraunkortasunaren aldeko politika bat bultzatzeko apustua oinarri hartuta.
- Nazioartean, Estatuan eta elkarte autonomoetan garatutako ingurumen politikekin bat eginda: ordenantza honen printzipio inspiratzaileak Kyotoko Protokoloa, Klima Aldaketaren eta Energia Garbiaren Espainiako Estrategia eta Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana (20082008-2012) dira.
- Klima aldaketa, Udalaren erantzukizuna: Udalak berotegi-efektuko gasen isurketak murrizteko eta klima aldaketaren ondoriozko arriskuak murrizteko neurriak hartzea:
 - o Energia aurreztuta eta eraginkortasunez erabilia eta energia berriztagarrien zein alternatiboen erabilera bultzatuta, bereziki, udal instalazioetan eta argiteria publikoan.
 - o Natur baliabideak babestea, bereziki hustutegietan eginkizun jakin bat dutenak.
 - o Hirigintza garapena eta planifikazioa iraunkortasun-irizpideen arabera eta klima aldaketara egokitzeko irizpideen arabera garatzea, bai eta eraikuntza iraunkorrerako politikak sustatzea ere.
 - o Mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasuna bultzatzeko politikak garatzea, ibilgailu pribatuen erabilera murriztuz eta teknologia garbia nahiz motorrik gabeko garraiobideak lehenetsiz.
 - o Kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea, hondakinak hasieratik behar bezala kudeatzea eta zaborra biltzeko eta deuseztatzeko sistemak hobetzea.
 - o Natur baliabideen, azpiegituren eta jarduera sozioekonomikoen kudeaketa prebentiboa bultzatzea, egokitzapen irizpideak oinarri hartuta.
 - o Sentsibilizazio programak garatzea udal bizitzan parte hartzen duten eragile guztientzat eta haien parte-hartzea bultzatzea udal politikan.
 - o Udalaren konpromisoa klima aldaketaren aurkako printzipio guztiak aplikatzeko; bai kanpoaldera begira, bai udal antolakuntzari begira.

3. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea

1. Pertsona guztiak ingurumen gaietako informazioa jasotzeko eskubidea dute, batez ere klima aldaketarekin lotutako gaien inguruan.
2. Alkatea, zinegotzi ordezkariak edo arauen bidez finkatutako organoak dira informazioa helarazteko arduradunak.
3. Informazioa eskuratzeko eskubidearen ondorioz, aipatutako agintariak derrigorrez eman behar diete herritarrei klima aldaketaren aurkako borrokari buruz duten informazio ofizial guztia.
4. Udal agintariak euskarri informatiko egokienean emango ditu informazioak, herritarren eskariei jarraiki, eta euskarri digitalak lehenetsiz. Agintariak ezin izango dute euskarri digitalik ukatu, udalean halakorik badago. Hala gertatuko balitz, informazioa jasotzeko eskubidea urratutzat joko da.
5. Informazioa emateko ezezkua arrazoi jakinen ondorioz eman daiteke soilik; halako kasuetan, herritarrei informazioa non bilatu azaldu behar zaie, baita gaiaren inguruan legez finkatuta dauden baliabideen berri eman ere.
6. Informazioa eman behar duen agintariak eskatzailearen ezaugarri fisikoei eta, kasuan kasuan, eskatzailearen mugei ondoen egokitutako informazioa eman beharko du.

4. artikulua. Administrazioen informazio betebeharra

1. Tokiko agintari eskudunak informazio iraunkorrerako sistema bat finkatu behar du, klima aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako datu guztiak bilduz.
2. Aurreko atalean adierazitako informazioak formatu digitalean eta zuzenean sarean ikusteko modukoa izan behar du, ohiko formatuez gain.

3. Tokiko agintariak modu frogagarrian publikoki aurkeztutako informazioa 4. artikuluan aitortutako eskubidearen ukapen motibatuko arrazoi izango da; eskatzaileari eskatutako informazioa lortzeko modua adierazi beharko zaio.

4. Ingurumen gaiekin lotutako informazio mekanismoek informazio gardena eta iraunkorra bermatu beharko dute. Teknikoki konplexuak diren informazioak haiek ulergarriagoak egiteko laburpenekin edo azalpenekin eman beharko dira.

5. artikulua. Klima aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako administrazio prozeduretan parte hartzeko eskubidea

1. Herritarren parte hartzeko eskubidea modu zehatzean finkatu behar da, benetako parte hartzea bermatze aldera. Helburu horrekin, Klima Aldaketaren aurkako Udal Programaren barruan, parte-hartze hori bermatzen duten mekanismo edo tresnak aurreikusiko dira.

2. Partaidetza eskubidea aukerak eta alternatibak irekita daudenean eta iritziak eztabaidatu daitezkeenean gauzatu behar da.

3. Herritarrek oharrak, alegazioak eta proposamenak aurkezteko eskubidea dute.

4. Agintari publikoek derrigorrez erantzun beharko diete aurreko atalean aipatutako esku-hartzeei: alderdi horri dagokionez, argi eta garbi azaldu beharko dituzte hartutako erabakia justifikatzen duten motibazioak.

5. Partaidetza eskubidea eragozten duen erantzunik eza gertatuko balitz, prozedura aurkaratu ahal izango da, hura amaitu gabe ere; erantzun egokirik ezean, ezinezkoa baita partaidetza eskubidea behar bezala gauzatzea.

6. Prozedura amaitzean, argi azaldu beharko da zer nolako parte-hartzea garatu den: hau da, izapidetze prozesuan jasotako ekarpenen kopurua, mota eta ezaugarri nagusiak, baita haiei emandako erantzunak ere.

6. artikulua. Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Udal Programan finkatutako eginbeharrak betetzea

1. Klima Aldaketaren aurkako Udal Programak agintari publikoek gai horrekin lotutako politiketan beren gain hartutako betekizunak barne hartuko dituzte, besteak beste.

2. Aurreko atalean aipatutako betekizunen ondorioz, herritarrek programa bete dadila eskatzeko eskubidea izango dute, bertan aurreikusitako zerbitzuak barne.

BIGARREN ATALA. BOTERE PUBLIKOEN ESKU HARTZEKO MODUAK, BEREZIKI KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKARAKO PROGRAMAN

7. artikulua. Tokiko erakundearen esku hartzeko moduak

1. Legazpiko Udaleko tokiko erakundeak udalak eta udalerrriak isurtzen dituen berotegi efektuko gasen inbentarioa egingo du; inbentario horretatik abiatuz, gai horren inguruko tokiko politika garatuko da.

2. Klima Aldaketaren borrokarako Udal Programak finkatuko ditu tokiko politikaren gidalerroak, 9. artikuluko preskripzioak oinarri hartuta. Plan horrek erabat koordinatuta egon behar du Tokiko Agenda 21en Tokiko Ekintzetarako Planarekin.

3. Hirigintza planeamendurako eta udal plangintzarako tresnek klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketari egokitzeko neurriak finkatu beharko dituzte, haien diseinuaren hasierako faseetatik.

4. Tokiko eremuko politika fiskalak kontuan hartu beharko du klima aldaketaren aurkako borrokaren irizpidea eta, zehazki, ingurumenaren babesa, helburu orokor gisa.

5. Klima aldaketaren aurkako borrokarako politikan, erakunde publikoak etengabe saiatu behar dira gaiarekin lotutako sektoreekin akordioak lortzen, bereziki industria sektorearekin, lehen sektorearekin, zerbitzuekin eta eraikuntza sektorearekin. Hitzarmenak hitzarmen, kasu guztietan zorrotz aplikatu beharko da indarrean dagoen ordenamendu juridikoa.

6. Ezinbestekoa da gizartearen parte-hartzea klima aldaketaren aurkako borrokarako politiketan; izan ere, parte-hartze hori izango da jarduera publikoaren bideratzailea. Botere publikoen funtzionamenduaren printzipio demokratikoa eta eraginkortasun printzipioa dira politika horren funtsezko zutabeak.

7. Herritarrek heztea eta sensibilizatzea ezinbestekoa izango da botere publikoen jardueran, Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Udal Programa honen barruan.

8. Lizentzietan eta baimenetan Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Udal Programan finkatutako betebeharrak integratzea, bereziki instalazioaren edo jardueraren eraginkortasuna baloratzeko orduan, haren berotegi efektuko gasen isurketei dagokienez.
9. Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Udal Programan zehaztutako printzipioak eta betebeharrak aplikatutako zaizkie mankomunitatean edo hitzartuta burutzen diren botere publikoei eta zerbitzu publikoei.
10. Larrialdi plan berrietan aurreikusi edo dagoeneko eginda daudenetan jaso beharko dira, beharrezkoa bada, klima aldaketaren ondoriozko fenomenoekin edo egoerekin lotutako aurreikuspenak.

8. artikulua. Klima Aldaketaren aurkako Udal Programa: definizioa

1. Klima Aldaketaren aurkako Programa arlo horretako tokiko politikaren funtsezko tresna da. Plan horren edukia eta ezaugarriak ondoren aipatzen dira.
2. Klima Aldaketaren aurkako Udal Programa klima aldaketaren aurkako ordenantza orokorra indarrean sartu eta hamabi hileko epean egin eta onartu beharko da.
3. Programa alkatetzak zuzendu behar du eta alkatetzak berak sortuko ditu plana egoki kudeatzeko koordinazio-organo guztiak; izan ere, plan horrek udaleko sail ia guztiak hartzen ditu barne.
4. Klima Aldaketaren aurkako Programak hainbat urtez iraungo du; hala ere, zenbait helburu estrategiko finkatuko dira epe ertainera eta luzera (2012 eta 2020 urteetarako hurrenez hurren). Epe hori igaro baino lehen Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Programa berri bat sortuko da, aurrekoa ordezkatzeko.
5. Klima Aldaketaren aurkako Programaren eraginkortasuna urteko txosten baten bidez aztertuko da, baita programaren emaitzei buruzko hainbat daturen eta informazioren bidez ere. Udaltzatza onartu beharko du txostena.
6. Programak jarraipenerako adierazle batzuk definituko ditu, programak zer nolako aurrerapausoak egin dituen balioesteko eta urteko jarraipen txostena errazago egin ahal izateko.
7. Klima Aldaketaren aurkako Programa aurreko atalean aipatutako txostenaren ondorioen arabera aldatu ahal izango da.

9. artikulua. Klima Aldaketaren aurkako Udal Programa: Edukia

1. Klima Aldaketaren aurkako Programaren abiapuntua berotegi efektuko fasen tokiko inbentarioa izango da.
2. Klima Aldaketaren aurkako Programaren helburu nagusiak berotegi efektuko gasen isurketak murriztea eta klima aldaketara egokitzea izango dira.
3. Klima Aldaketaren aurkako Programak beharrezko xedapen eta erabaki guztiak aurreikusiko ditu inguruak basoberritzeko, haietatik landareak eta zuhaitzak kentzeko eta/edo basoberritutako eremuak zaintzeko, dauden hustutegiak behar bezala kudeatuz.
4. Trafiko eta mugikortasun iraunkorrak kontuan hartu beharreko alderdiak izango dira Klima Aldaketaren aurkako Borrokarako Udal Programan.
5. Klima aldaketaren aurkako politika eta erosketa publiko berdearen sustapena ere kontuan hartu beharko dira mugikortasunarekin, hornikuntza kontratuekin eta edozein motatako obrarekin lotutako zerbitzu publikoak emateko deialdi publikoetan.
6. Hirigintza Planak eta, oro har, lurraldean eragina duten plan guztiak Klima Aldaketaren aurkako Programan finkatutako parametroetan oinarrituz egin beharko dira.
7. Klima Aldaketaren aurkako Udal Programak eraikuntza iraunkorra lortzeko helburuak eta irizpideak finkatuko ditu, eremu publikoan nahiz pribatuan, eraikin berrien eraikuntzan, eta haien birgaitze lanetan, arauen eta lizentzien bidez.
8. Programaren eduki funtsezkoeneko bat energia kontsumoa aurrezte eta eraginkortasuna izango da. Horretarako, beharrezko betekizun tekniko guztiak finkatuko dira, energia eraginkortasunez aprobetxatze aldera.
9. Programak energia berriztagarriak bultzatzeko konpromisoak eta betebeharrak publikoak eta/edo pribatuak hartuko ditu.
10. Berotegi efektuko gasen isurketaren murrizketa hiri hondakinak biltzeko eta deuseztatzeko politikaren printzipioetako bat izango da.
11. Programak industria sektorearekin, eraikuntza sektorearekin, lehen sektorearekin eta gainerako eragileekin sinatutako akordioak eta/edo hitzarmenak bilduko ditu.
12. Herritarrak hezteko, sentsibilizatzeko eta haien partaidetzarako politika programaren zehar-lerroetako bat izango da.

10. artikulua. Klima aldaketaren aurkako borroka

1. Programa udal agintari eskudunak aurkeztuko du eta, hasiera batean, **2009-12-31n** onartuko da. Betekizun hori urratuz gero, herritarrek eskubidea izango dute programaren proiektu bat aurkezteko. Hala gertatuz gero, udalak proiektuaren izapide guztiak egin beharko ditu ondoren azaltzen diren faseen arabera. Informazio batzordeak izango balira, dagokion batzordeak txosten bat aurkeztu beharko du, plana onartu aurretik.

2. Hasieran onartutako Klima Aldaketaren aurkako Udal Programa jendaurrean aurkeztuko da onartu eta ondorengo egunean. Plan horrek euskarri digitalean eta Interneten egon behar du, baita paperean ere, nahi duten herritar guztiak azter dezaten. Informazio epe hori hilabetekoa izango da, plana publikatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. Informazio epean egindako ekarpenak aurreko atalean aipatutako baldintza berberetan kontsultatu ahal izango dira.

4. Behin betiko programa osoko bilkuran aurkeztuko da onarpena jasotzeko, informazio epearen ondoren sartutako aldaketa guztiak barne (onartutako proposamenak adieraziz eta onartu ez direnak arrazoituz), eta herritar guztiak aurkezpena ikusi ahal izango dute. Horretarako, udalak aurkezpenaren berri emango du hamabost egun lehenago.

11. artikulua. Klima aldaketaren aurkako borrokarako hezkuntza eta sentsibilizazioa.

Udal agintariak komunikazio, informazio eta sentsibilizazio helburuak sartuko ditu klima aldaketaren aurkako borrokarako programan, Tokiko Agenda 21aren esparruan dagoeneko finkatuta dauden mekanismoekin koordinatuz. Herritarrek parte hartzeko foroa da mekanismo horietako bat:

1. Berotegi efektuko gasen inbentarioari eta klima aldaketara egokitzeari buruzko informazio programa bat egingo da, herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzeko. Programa hori kasuan kasuko gizarte eragileen eta taldeen arabera egingo da.
2. Sentsibilizazio politikak helburu berritzailea izango du, eta tokiko hedabideetan lehendik ere badiren bideak erabiltzeaz gain, bide berriak ere sortuko ditu, gizarteko eragile guztiengana iritsi ahal izateko.
3. Udalak herritarren parte-hartzea sustatzeko politika aktiboa bultzatuko du.
4. Udalaren jokabideak eredugarria izan behar du: horretarako, berotegi efektuko gasen murrizketa funtsezkoa izango da udaleko instalazioen eta zerbitzuen kudeaketan, eta herritarrei lortutako emaitza guztiak jakinaraziko zaizkie.

HIRUGARREN ATALA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ANTOLAKUNTZA ETA HARREMANAK

12. artikulua. Erakundea: Printzipioa

1. Beharrezko bitarteko guztiak aurreikusi eta lortuko dira klima aldaketaren aurkako programaren eta ingurumenarekin lotutako gainerako araudien aurreikuspen guztiak gauzatu ahal izateko.

2. Udalaren jarduera gainerako administrazio eskudun guztiak elkarlan eta koordinazio printzipioan oinarrituko da.

3. Aurreko printzipioen arabera, Udalak indarrean den ordenamendu juridikoan aurreikusitako hitzarmenak, partzuergoak, mankomunitateak eta gainerako erakundeak eratuko ditu.

4. Beste administrazio batzuekiko elkarlana garatzeko (bereziki tokiko beste erakundeekikoa) kontsultarako organoak, elkarteak eta abar sortuko dira.